

Laudion, 2024ko otsailaren 13an

## **Udalak luzapena lortu du urte amaiera arte Abastos Plazaren dirulaguntzari eusteko**

*Proiektuaren lizitazioa aurrera doa eta "Ormak-Altuna y Uria" ABEEaren aldeko esleipen-proposamena egin da jada*

Laudioko Udalak aurrerapausoak ematen jarraitzen du Abastos Plaza erberritzeko proiektuan, eta aurrerapen handienak izapidetzean izan dira. Gainera, Estatu Gobernuako Merkataritzako Idazkari den Xiana Margarida Mendezek Udalari jakinarazi dio obraren %60 egiteko epea 2024ko abenduaren 31ra arte luzatu dela, ezinbesteko baldintza Next Generation funtsen bidez emandako 1,6 milioi euroko dirulaguntzaren indarraldia bermatzeko.

*"Ez diogu exekuzio-epeak atzeratzen saiatzeari utzi, dirulaguntza bermatzeko. Lan horren ondorioz, egikaritze-denbora zabaltzea lortu dugu, eta horrek dirulaguntza jasotzeko aukera ematen digu. Edonola ere, beti izan dugu asmoa proiektua aurrera eramteko",* adierazi du Jakinda Artaraz Sustapen Ekonomikoko zinegotziak.

### **Obraren lizitazio prozesua**

Bestalde, gaur, otsailaren 13an, Udal Kontratazio Mahaiak "Ormak-Altuna y Uria" ABEEa proposatu du obraren esleipendun gisa Abastos Plaza berria eraikitzeko, eta

horrek beste aurrerapen bat dakar proiektuaren izapidetzean eta egikaritzean.

Iaz proiektua herritarren partaidetzara zabaldu zen, eta hasierako proiektuak aurreikusten ez zituen elementu historiko batzuk kontserbatuko ditu, eta baserritarrek behin okupatu zuten espazioa berreskuratuko du ere.

*"Gobernu Taldetik proiektu honekiko dugun konpromisoa berresten dugu. Laudiorentzat ezinbestekotzat jotzen dugu, inguruaren hiri-berroneratzea eta balioa ematea bilatzen duelako", gogorarazi du zinegotziak.*